

| | | | | |
|------------------------------|---------------------------|-------------------------|-----------------------------|---|
| Distantzia 7,25 km | Desnibela 140 m | Iraupena 2h00 | Tipologia Itzulia | Zedarriak PR seinaleak ibilbide osoan |
|------------------------------|---------------------------|-------------------------|-----------------------------|---|

Ibilaldiaren abiapuntua Ezpeletako merkatu plazan dago, "Chez Doxpi" jatetxearen parean.

GPS datuak: **UTM : 625886 - 4799685 Lat/Long : 43.339484/-1.446993**

Ibilbide hau oso erraza eta egokia da familientzat edo ibilaldi luzeak egiteko ohitura guti duen jendearentzat. Euskal ondarearen zati bat ezagutzeko aukera ematen du, hala nola arkitektura, bipergintza, artzaintza... Hori guziaz ingurune berdean, eta ikuspegi ederrarekin mendiara.

1. ZATIA > Ezpeletako herrian

UTM: 625886 - 4799685

Merkatu plazan, Chez Doxpi jatetxearen parean, bi ezpel hesien arteko bidea hartu, gaztelurantz. Bidearen bukaeran, joan ezkerrera, errepidetik. Ezpeletako Biperraren Sindikatuaren eraikina utzi, joan eskuinera eta gazteluaren aitzinetik pasatu. Hartu frontoiaren eta gazteluaren arteko errepidea, eta pilota plaza eta gero, ezkerreko eskailerak jaitsi. Behera iritsi, eta etxe handi baten ondotik, berehala, joan ezkerrera. Berdegune batera daramaten beste maila batzuk jaitsi. Erreka zeharkatzen duen zubixkaren gainetik joan, eta bi hormatxoaren arteko pasabidetik ibili, baina ez luzaz.

2. ZATIA > Ezpeletako biperraren ateleriarantz

UTM: 626131 - 4799889

Bidearen bukaeran, karrika batera iritsi, eta joan ezkerrera, kanpoko leiho gorridun etxe eder batzuen artean, elizarantz. Bidegurutze batera iritsi, eta joan eskuinera, eztiki igotzen den errepidetik. Errepide honetan 270 m ibili, eta joan eskuinera, bi etxetako baratzeen arteko bidexka hertsiki batetik. Joan ezkerrera, hesiaren bazterretik, eta 200 m ibili. Ongi ageri den bidexka horretatik segitu. Bidexkaren bukaeran, errepidea bururatzen da ere. Joan ezkerrera, oihanpe batetik doan bidetik. Eta Ezpeletako biperraren ateleriaren heinean dagoen errepidera iritsi.

3. ZATIA > Parke oihantsu batera iristea


UTM: 626435 - 4800401

Errepidean, joan ezkerrera. 100 m ibili ondoan, arrotz logelen heinean, joan eskuinera, hesi baten bazterretik doan bidexka ttipi batetik. 270 m ibili ondoan, errepidera iritsi eta joan eskuinera. Errepide horretatik jaitsi eta 350 m ibili. Orduan, eskuineko bidea hartu. Jaitsi labor baten ondotik, bidea mundrunatua bilakatzen da eta bizitegi baterantz darama. Ezkerretik jarraitu. Segitu bide belartsu horretatik, errepidera iritsi arte. Orduan, joan ezkerrera. Bihurgune baten heinera iritsi, eta joan eskuinera, bide batetik. Ibilbideak aitzina segitzen du, erreka baten bazterrean iritsi arte. Errekaren eskuineko hegiti ibili, haritz ederreko parke batera iritsi arte.

4. ZATIA > Oihanpean

UTM: 625717 - 4801067

Biratu eskuinera. Bide-adarkatzean, hartu bidexka bat ezkerrera, eta eskuinaldeko hesiaren bazterretik ibili. Jaitsi bidexkatik, Biper Gorri kanpinaren sarrerara iristeko.



Zubia zeharkatu, eta joan ezkerrera, igotzen den errepidetik. 250 m ibili ondoan, iritsi bidegurutze batera eta joan ezkerrera. Pasatu edukiontzia, eta, gero, joan eskuinera bide batetik. Bidearen behean, hesi baten heinera iritsi. Hesia pasatu eta pentzera igotzen den bide baten ezker aldean dagoen bidexka zabaletik joan. Bigarren hesia pasatu eta erreka ttipi bat zeharkatu. Segitu gora doan bidexkatik, pentze batera iritsi arte.

5. ZATIA > Herriaren gainetan

UTM: 625105 - 4800592

Isolatutako haritz handi baten heinean, joan ezkerrera, negutegietarantz. Negutegien heinean, joan eskuinera. Hesiaren bazterretik ibili, atexka ttipi bateraino. Atexka pasatu eta hetsi, eta errepidean joan eskuinera. Errepidean 100 m ibili ondoan, joan eskuinera, bide batetik. Bidearen amaieran, errepidera iritsi eta hura zeharkatu. Jaisten den bidexka zabal batetik joan. Oihanpean ibili eta zubixka bat zeharkatu. Ondotik, patarrean gora joan. Bidegurutze batera iritsi, eta joan ezkerrera bidexka batetik.

6. ZATIA > Erromatar zubirantz

UTM: 624448 - 4800254

Bi argigune eder zeharkatu eta oihanpetik jarraitu. Oihanpean sartu eta 50 m-ra, bidexka nagusitik bereizten den bidexka hertsiki batetik joan. Bidexka bat baino gehiagoko bidegurutze batera iritsi. Zubixkaren gainetik erreka zeharkatu ondoan, arras ezkerrean dagoen bidetik joan. Lehenik, oihanpean, joan ezkerrera eta pentze baten luzeran ibili. Gero, haritzen artean segitu, eta bide horren bukaeran, errepide batera iritsi. Joan eskuinera. Lehen bidegurutzean, joan berriz eskuinera. Errepidearen bukaeran, joan ezkerrera, erromatar zubia zeharkatzeko.

7. ZATIA > Herrira itzultzea

UTM: 625335 - 4799793

Pareko errepidetik joan. Stopera iritsi, joan ezkerrera, herri barnerantz gora doan karrikatik. Pasatu Pottoka jatetxea, eta joan eskuinera. Karrika nagusian, joan ezkerrera, okindegiaren eta bankuaren artean, eta, gero, hartu lehena eskuinera, merkatu plazara iristeko.

INTERESGUNEAK

❖ Ezpeletako biperraren interpretazio zentroa

Ezpeletako Biperraren Ekoizleen Sindikatuaren ekimenez sortu zen espazio hau. Bisita iruzkindu baten bidez, biperra ezagutzeko aukera ematen du: haren historia, lurra eta fruituaren ezagarrigaitza organoleptikoak. Film labur bat ikus daiteke eta biper hautsa dasta daiteke ere. UTM: 625916 - 4799801

❖ Gaztelua

Ezpeletako baroiaren gaztelua - edo hobeki erran herriko ikur honen hondakina- Erdi Arokoa da. Matxinada baten ondotik suntsitua izan zen eta ezpeletarrek berreraiki zuten. 1694an jabetza herriari eman zitzaion. Gaur egun, herriko zerbitzuak aterpetzen ditu. UTM: 625916 - 4799801

❖ Ezpeletako biperraren tailerra

Bisita ezin hutsegina Ezpeletan, tailerrak publikoak errezubitzen du biper famatua ezagutarazteko. Historia, kultur moda, mozkin desberdinen ekoizpena, AOC, langileek biper gorriari buruz dakiten guziaz kondatuko dizute. UTM: 625916 - 4799801

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

Kontuz ibili errepide bazterretik pasatzean

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

- Komuna publikoak
UTM: 625898 - 4799724

- Piknika mahaia
UTM: 625942 - 4799718



Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia. Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia. Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilbideko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, igoera guzieren gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da.

Kontuan hartzen ditu ibilbidearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoan, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbidearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentzia zko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziartzat duden emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaleetika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZEDARRITATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

| | PR® TOKIKO BIDEXKA | GRP® PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA | GR® IBILBIDE LUZEA | VTT BIDEXKA |
|-----------------|-----------------------|------------------------------------|-----------------------|----------------|
| Norabide ona | — | — | — | ▲ |
| Itzul ezker | └┐ | └┐ | └┐ | ◀ |
| Itzul eskuin | ┐└ | ┐└ | ┐└ | ▶ |
| Norabide okerra | ✕ | ✕ | ✕ | ✕ |

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrek gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gov.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- EZPELETA, karrika nagusia
+33(0)5 59 93 95 02

- SENPERE, pilota plaza karrika
+33(0)5 59 54 11 69

- AINHOA, karrika nagusia
+33(0)5 59 29 93 99

- SARA, Herriko Etxea
+33(0)5 59 54 20 14

- AZKAIN, Olhetako bidea
+33(0)5 59 54 00 84

- URRUNA, René Soubelet plaza
+33(0)5 59 54 60 80

Kanboko Turismo Bulegoa

Avenue de la mairie
+33(0)5 59 29 70 25

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.